

## **Gazteen Euskal Behatokiak “Etxebizitza-emantzipazioaren kostua Euskadin 2019” izeneko txostena aurkeztu du**

Seriearen txosten berri honetan haxe aztertzen du: zenbat kostatzen zaion, teorian, soldatapeko 18 eta 34 urte bitarteko gazte bati bere kabuz emantzipatzea, etxebizitza erosten badu zein alokatzen badu.

Horretarako hamabi adierazle kalkulatu dira; adierazle horiek etxebizitza librea zein babestua erosteak edo alokatzeak dakarren kostu teorikoa adierazten dute. Kostu teorikoa da, oinarritzat hartzen diren datuak batezbestekoak baitira: erosten edo alokatzen diren etxebizitzaren batez besteko prezioak, gazteen batez besteko soldatak eta hipoteka-maileguren baldintza arruntak. Beraz, egoera orokorrak aztertzen dira eta ez kasu indibidualak.

Datuak eta beraien bilakaera Euskadi osorako aurkezten dira, bai eta lurralde historiko bakoitzerako ere. Gainera, sexuaren eta adin-taldearen arabera bananduta azaltzen dira.

Txostenaren emaitzek adierazten dute, laburbilduz, etxebizitza librea jabetzan hartzeko kostua, hau da, 18 eta 34 urte bitarteko gazte soldatadun batek merkatu librean etxebizitza bat erosteko hipotekaren kuota ordaintzera bideratu beharko lukeen soldata garbiaren proportzioa, % 55,1 izango litzatekeela 2019an.

Etxebizitza librea alokatzeko kostua, hau da, soldatapeko gazte batek alokairu errenta ordaintzera bideratu beharko lukeen soldataren proportzioa % 50,4 izango litzateke urte horretan.

Zifra horiek gomendatutako gehienezko zorpetze-mugaren gainetik daude; muga hori soldataren % 30ean ezartzen baita.

Etxebizitza babestuak, aldiz, eskuratzeko kostu onargarriagoak dakartza soldatapeko gazteentzat. 2019an etxebizitza babestua erosteak hileko soldata garbiaren % 30,7 hipoteka ordaintzera bideratzea eskatu du, eta etxebizitza babestua alokatzeak are gutxiago, alokairu-errenta ordaintzera soldataren % 25,3 bideratzea baitakar. Etxebizitza babestuak, beraz, aukera ematen die bakarrik emantzipatu nahi duten gazteei beren kontura bizitzeko gaitasun ekonomikoaren arriskurik gabe.